

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

André Courrèges, ilargiko nekazaria

Arrastoak

Altamira berriro zabaldu nahi dute bisitarientzat



Ezkerrean, Courrègesen 60ko hamarkadako diseinuak, euskal jostunaren ezaugarri nagusietakoak nabarmentzen dituztenak: kolore gorria eta minigona. Eskuinean, André Courrèges bera.

PARIS, 1975. André Courrèges diseinatzaileak Aro Espaziala izenburuko udaberri-udako bilduma aurkeztu zuen eta modaren munduan iraultza ekarri zuen emakumezkoen jantzi sorta hark. Courrègesen lanaren kutsu futurista urrun zegoen bere sorterriko frontoietatik. Edorta Kortadik 1974an Zeruko ARGIAN egin zion elkarrizketan hala aurkeztu zuen moda sortzailea: “André Courrèges Nafarroa Beherekoa da. Espainolez ederki mintzatzen da. Eta euskaraz, behar denean, ez da gibel gelditzen. Alabari izen euskalduna ezarri dio. Pilotan ere egin ohi du”.

Hamar urtez Balenciaga maisuaren ikasle aritu eta gero, bere enpresa sortu zuen. Mary Quantekin batera minigonaren sortzailetzat jo ohi da, 1965ean bertan jostun britainiarren gona laburra modernizatu eta hedatu baitzuen. Itxura metalikoko ehunak eta plastikoak erabiltzen lehena izan zen. Forma geometriko eta eroak sortu zituen. 45 urte geroago zaharkituak geratu ez diren diseinuak dira. Gazteentzako arropa

erosoa egin zuen, goi mailako jostuntzako bezero nagusiak aristokraziako emakume zaharragoak zirela jakitun. Hala, ez zuen beharbada Chanel, Dior edo Balenciagaren beraren ospe handia lortuko, baina bere asmoa goi jostuntza demokratizatzea zen, ekoizpen eta banaketa kostuak murriztuz. “Borroka eta lan egiten duten izpiritu gazteko emaztekiak jantzen ditut. Besterik ez”, esan zion Zeruko ARGIARI.

“Loreekin mintzatzea zait gustatzen, lore grisik ez baitago. Koloredunak dira. Nik egin jantziak ere halaxe izan daitezela nahi dut. Mundu alaiago bat egin nahi nuke”. Kolore biziak hainbesteko garrantzia zuten bere diseinuetan, ezen hainbestetan erabili zuen mitxoleta gorriari *Rouge Courrèges* esaten baitzaio oraindik.

“Ilargiko nekazari bat nauzu. Beti nere irudimenean aztarrika ari naiz. Ez zait besteen kritizia axola. Milioika urtetan dabil mundua itzulika. Bizitza bat ez da ezer asko. Jendea joan egiten da”. Baina André Courrègesek 87 urte ditu eta oraindik lanean ari da.

ALTAMIRAKO (Espainia) kobazuloa publikoari berriro irekitzeko aukera aztertzen ari da Altamirako Museoko Patronatua. Lan batzordea osatu dute, eta azaroan bisitaldi mugatuak antolatzeko erabakia hartuko dutela aurreikusten da.

70eko hamarkadan kobazuloa labar pinturak ikustera urtero 175.000 pertsona joaten ziren eta horrek kalte izugarria eragin zien margoei. Horregatik, 1977an koba ixtea erabaki zuten. 1982tik aurrera bisitari kopurua mugatuta berriro ireki zuten, eta 2002an atzera itxi. Orduetik hona 2,5 milioi bisitari inguru izan ditu ondoan egingdako erreplikak.

Lascauxeko (Frantzia) labar pinturek kalte atzeraezinak jasan zituzten bisitarien erruz. Ekaingo kobazuloa, aldiz, beti itxita egon da aurkitu zutenetik eta erreplika bisita daiteke gaur egun. Aditu guztiak bat datoz Gipuzkoako margoak oso egoera onean daudela neurri horri esker. Altamiran zergatik jarri nahi dute arriskuan historiaurreko altxor bikaina?

